



Belaunaldi arteko etxebizitza

Vivienda inter-generacional

TOLOSA

Parte-hartze prozesua
Proceso participativo



HIRITIK AT

Lurraldegintzarako
koordinatu
berriak

www.hiritik-at.eus

TOLOSAKO BELAUNALDI ARTEKO ETXEBIZITZA

Izaera eta ezaugarri nagusiak

Características generales

1.SARRERA

1.INTRODUCCIÓN

2.PROIEKTUAREN HELBURUAK

2.OBJETIVOS DEL PROYECTO

3..PARTE-HARTZE PROZESUA

PROCESO PARTICIPATIVO

4.AURRE-BALDINTZAK

CONDICIONES PREVIAS

5. PROZESUAREN EMAITZA NAGUSIAK


PRINCIPALES RESULTADOS DEL PROCESO

6. ONDORIOAK: PROIEKTUAREN EZAUGARRITZEA

CONCLUSIONES: CARACTERÍSTICAS DEL PROYECTO

7.PROGRAMA ARKITEKTONIKOA

PROGRAMA ARQUITECTÓNICO



1.SARRERA

Gaur egungo etxebizitza ereduek eta bere prezioek ez dute erantzuten jendartearen beharretara eta horren aurrean beharrezkoa da eredu berriak diseinatu eta inplementatzea, izaera publiko-komunitarioa izango duten etxebizitzak sustatuz.

Gazteak eta adin nagusiko pertsonak bereziki baztertuta geratzen dira egun indarrean dagoen eskaintzatik. Lehenengoak euren diru-sarrerengatik nagusiki, bigarrenak zenbait faktorengatik (irisgarritasuna, herrigunetik urrun bizitzea, bakardadea, beharrak aldatu direlako...).

Badaude ere bestelako kolektibo batzuk etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituztenak (banandutako pertsonak, atzeritar jatorria duten pertsonak, diru-sarrera txikiak dituztenak...). Horiek ere kontutan hartu behar ditugu etxebizitza eredu inklusiboak planteatzerakoan.

Hoy en día, los modelos de vivienda y sobre todo su precio, no responden a las necesidades sociales. Es necesario diseñar e implementar nuevos modelos, de carácter público-comunitario que respondan a dichas necesidades.

Las personas jóvenes y mayores son las que quedan apartadas de la oferta actual. En el primer caso debido principalmente a unos ingresos insuficientes y en el segundo por diferentes factores como la accesibilidad, la cercanía a servicios públicos o la soledad no deseada.

También hay otros colectivos (personas separadas, personas de origen extranjero, colectivos con ingresos insuficientes...) que se enfrentan a dificultades para el acceso a una vivienda adecuada. Si queremos plantear un modelo de vivienda inclusivo tendremos que tener en cuenta a los mismos.

2.PROIEKTUAREN HELBURUAK

Azaldutako egoeraren aurrean, etxebizitza eredu alternatiboak esploratzea planteatzen du proiektu honek eta bi helburu nagusiri erantzuteko erronka du:

- Gazteen emantzipazio beharrari irtenbideak bilatzea
- Adineko pertsonentzako zaintza ikuspegia barnebilduko duen etxebizitza eredua sustatzea

Horiek kontutan hartuta, Tolosako herritarrei irekita egon den parte-hartze prozesua burutu da zeinak:

- **Etxebizitza eredu alternatiboen inguruko gogoeta ireki du.**
- **Tolosan, belaunaldi arteko etxebizitza proiektu baten ezau-garri nagusiak eztabaidatzeko eta definitzeko balio izan du.**

Para hacer frente a la situación mencionada, este proyecto pretende explorar modelos de vivienda alternativos que respondan a dos objetivos principales:

- Buscar soluciones para facilitar la emancipación de las personas jóvenes
- Plantear un modelo de vivienda que integre la visión de cuidados que necesitan las personas mayores.

Teniendo esto en cuenta, se ha llevado a cabo un proceso participativo con los siguientes planteamientos:

- **Abrir una reflexión entorno a modelos de vivienda alternativos.**
- **Debatir y definir las bases de un proyecto de vivienda inter-generacional en Tolosa.**



3. PARTE-HARTZE PROZESUA

Ondoren, parte-hartze prozesuak izan dituen faseak eta jasotako ondorio nagusiak aurkezten ditugu.

Azpimarratu behar da, epe ertainean martxan jarriko den proiektu batetaz ari garela eta horrenbestez, proiektuaren oinarriak besterik ez direla jarri.

Proiektuaren zehaztasunak eta baita eredu alternatiboek eskaintzen dituzten aukeren inguruko hausnarketa eta horien inplementazioa Tolosan etorkizunean garatu beharko dira.

Aurkezpena

Tolosako etxebizitza publikoa eta eredu alternatiboen inguruko hitzaldia.

Aurre-lanketa

Elkarrizketak eragile desberdinei:
Auzo elkarteak, Oneka emakume pentsionisten elkarte, Zu ta ni inklusiorako elkarte, gazteen kolektiboa.
Online eta paperezko galdetegia.

Parte-hartze saioak

3 parte-hartze saio aurreikusiak zeuden.
Parte hartzaile kopurua oso baxua izan da eta horrenbestez ez dira denak burutu.

Emaitzen itzulpena

Proiektuaren oinarriak aurkezteko saioa

A continuación presentamos las principales fases del proceso participativo que se ha llevado a cabo así como las principales conclusiones del mismo.

Hay que subrayar que estamos definiendo un proyecto cuya ejecución se llevará a cabo a medio plazo por lo que aquí recogemos son sólo las bases de dicho proyecto.

Tanto las concreciones del mismo como la reflexión entorno a los modelos de vivienda alternativos y su posible implementación en Tolosa deben seguir desarrollándose en el futuro.

Presentación

Charla sobre vivienda pública en Tolosa y modelos de vivienda alternativos.

Estudio previo

Entrevistas a diferentes asociaciones:
Asociaciones de vecinas-os, asociación de mujeres pensionistas Oneka, asociación para la inclusión Zu ta ni, colectivo de jóvenes.
Cuestionario online y en papel.

Sesiones participativas

Se habían previsto 3 sesiones participativas.
Dichas sesiones han contado con un número de participantes muy bajo por lo que no se han llevado a cabo en su totalidad.

Devolución de resultados

Presentación de las bases del proyecto.



4. AURRE-BALDINTZAK

Eraikina

lurramendi pasealekuko hirigintza-eremuko A.20.3/24.1 lursailean burutu nahi dira belaunaldi arteko etxebizitzak.
Eremuak orotara 484,14 m²-ko azalera du eta bertan sotoa + behe solairua + 3 solairu + estalki azpiko solairua eraiki daitezke.
Behe solairuak erabilera komertziala izateko baimena du.
12 eta 15 etxebizitza artean eraiki daitezke.

lurramendi pasealekuan kokatuko dira etxebizitzak, 484m2 inguruko partzela batean eta 12-15 etxebizitza eraiki ahalko dira.

Edificio

Las viviendas intergeneracionales se pretenden ejecutar en la parcela A.20.3/24.1 del ámbito urbano del Paseo de Lurramendi.
El área tiene una superficie total de 484,14 m² y en ella se puede construir sótano + planta baja + 3 plantas + planta bajo cubierta.
La planta baja está autorizada para uso comercial.
Se pueden construir entre 12 y 15 viviendas.

Las viviendas se situarán en el Paseo lurramendi en una parcela de 484m2 de superficie. Se construirán entre 12 y 15 viviendas.

Aplikagarria den araudiaren baldintzak


Araudiak kontutan hartu behar ditugun baldintza batzuk ezartzen ditu.

- Babes ofizialeko alokairuzko etxebizitzak izango dira.
- Alokairuaren baldintzak (errenta, epea...) erabiltzailearen araberakoak izango dira.
- Adin tarte desberdinei eskaini ahalko zaizkie etxebizitzak, bakoitzarentzako baldintza batzuk ezarriko direlarik.
- Eskatzaileei baldintza minimo batzuk ezarriko zaizkie: errolda, diru-sarrera minimo eta maximoak...
- Etxebizitzen esleipena zozketa edo ponderazio bitartez egin ahal izango da.

Condiciones que impone la normativa aplicable

La normativa impone ciertos condicionantes a tener en cuenta.

- Serán viviendas de protección oficial en régimen de alquiler.
- Las condiciones del alquiler (renta, duración...) se determinarán en base al tipo de usuario-o.
- Se podrán determinar diferentes franjas de edad a las que se aplicarán diferentes condiciones.
- Se les exigirán ciertas condiciones a las/os usuarias-os: empadronamiento, mínimo y máximo de ingresos...
- La asignación de viviendas se podrá realizar por sorteo o ponderación según los casos.



5. PROZESUAREN EMAITZA NAGUSIAK

Auzo elkarteak

Adin ezberdineko jendea elkartzea eraikin berean bizitzeko oso aberasgarria izan daitekeelakoan daude.

Bizilagunentzat elkar topatzeko eta elkarrekin egoteko espazio bat egon behar duela adierazi dute.

Hiru espazio mota ikusten dituzte: etxizitza pribatua, bizilagunen eremua eta auzoari irekitakoa.

Gazteei lehentasuna eman behar zaiela adierazi dute hor bait dago behar gehien.

Bestelako egoeratan dauden pertsonak interesa izan dezakete ere: bakardade ez hautatuan bizi diren pertsonak edo oso etxebizitza prekarioetan bizi direnak.

Se considera que reunir a personas de diferentes edades en un mismo edificio puede ser muy enriquecedor.

Se ha señalado que debe haber un espacio de encuentro para que las/os vecinas/os. Se prevén tres tipos de espacios: vivienda privada, espacio comunitario para las/os vecinas/os y un espacio abierto al barrio y la ciudadanía en general.

Han indicado que se debe dar prioridad a los jóvenes, ya que es donde más necesidad hay.

También pueden estar interesados otros colectivos: personas que viven situaciones de soledad no deseada o personas que viven en viviendas muy precarias.

Oneka emakume pentsionisten elkartea

Etxebizitzaren kokapena egokia da, irisgarritasunaren aldetik berezki.

Denentzako etxebizitza tipologia berdina proposatzen dituzte.

Perfil ezberdinetako jendea egongo denez, ongi ikusi dute sukaldea komunitarioa ez egotea, arazoak ekidite aldera. Aldiz topaketarako espazio bat egon behar da. Horretaz gain, terrazak egoteari garrantzia eman zaio.

Eraikinak okupatuko duen lur sailari aprobetxamendu handiena ateratze aldera lur azpikoa probestearen aukera aipatu da (Usurbilen antzera), bertan kokatzeko biltegiak, instalazioen gelak, etab.

2 adin tartetean zentratzearen beharra nabarmendu du. Gazteak eta adinekoak, biei aukera berdina emanaz. Adineko gehienek bere etxean bizi nahi dutela argi badago ere, adinekoen proportzioak geroz eta handiagoak dira.

Auzoa bertan inplikatzeko espazioa izan behar da.

La ubicación de la vivienda es adecuada, especialmente en términos de accesibilidad.

Proponen el mismo tipo de vivienda para todas/os las/os habitantes.

Dado que habrá personas de diferentes perfiles, consideran que no es conveniente tener una cocina comunitaria para evitar problemas, pero sí debe haber un lugar para reunirse. Además, se ha dado importancia a tener terrazas.

Para aprovechar al máximo la parcela que ocupará el edificio, se ha mencionado la posibilidad de utilizar el subsuelo (similar a lo que se hace en Usurbil) para ubicar almacenes, salas de instalaciones, etc.

Se ha destacado la necesidad de centrarse en dos grupos de edad: jóvenes y personas mayores, dándoles a ambos la misma oportunidad. Aunque está claro que la mayoría de las personas mayores prefieren vivir en su propia casa, la proporción de las/os mismas/os está aumentando cada vez más.

El barrio debe tener un espacio para involucrarse en el proyecto.

Zu ta ni, inklusiorako elkarte

Hartatzen dituzten familia/pertsonen artean (zaugarritasun egoeran daudenak) etxebizitzaren arazo nagusietako bat da (sarbidea zein etxebizitzaren baldintzak).

Proiektuak familia horietako batzuen integrazioa helburu izan zezakeen. Familia horietako haurrak (askotan atzerritar jatorrikoak) herriko eta euskal kultura/izaeran integratzeko lanketa interesgarri bat planteatu ahal da.

Behereko solairua herritarrentzako/eragileentzako lokal irekia izatea positiboki baloratzen da: auzoko elkargunea.

Adineko pertsonen etxebizitza jabe izan ohi dute. Horiek alokairura bideratzeko baldintza ezarri behar da.

Entre las familias/personas que atienden (aquellas en situación de vulnerabilidad), el acceso a la vivienda y las condiciones de las mismas son uno de los problemas principales.

El proyecto podría tener como objetivo la integración de algunas de estas familias. Se podría plantear un trabajo interesante para integrar a las/os niñas/os de estas familias (mayoritariamente de origen extranjero) en la cultura vasca.

Se valora positivamente que la planta baja sea un local abierto para las/os ciudadanas y asociaciones: un punto de encuentro del barrio.

Las personas mayores suelen tener la propiedad de su vivienda. Se deben establecer condiciones para destinar esas viviendas al alquiler.

Gazteak

Izaera komunitarioari dagokionean, espazio ireki bat egotea ikusten da, momentu puntualetan herrira zabaltzea daitekeena. Horren kudeaketa Udalak egiteko aukera baloratzen da.

Etxeko biztanleen ezaugarri nagusia komunitatea sendotzeko ekintza eta jarduerak ezberdinetan parte hartzeko bideak izan behar da, adibidez, hilabetean behin zaintza edo ekintza komunitarioetan parte hartuz.

Etxebizitza mota ezberdinak eta anitzak aurreikusten dira baina logela bakarrekoak lehenetsi behar dira espazio komunei garrantzia emanaz.

Adin tarte ezberdinetako eskaintza egitea proposatzen da (adinekoak, gazteak eta tartean daudenak).

En lo que respecta a la naturaleza comunitaria, se considera importante que haya un espacio abierto que pueda abrirse a la ciudadanía en momentos puntuales. Se valora la posibilidad de que la gestión de este espacio sea realizada por el Ayuntamiento.

La característica principal de las/os habitantes de la vivienda debe ser la vocación de participar en diversas acciones y actividades para fortalecer la comunidad, por ejemplo, participando en actividades de cuidado o comunitarias una vez al mes.


Se prevén diferentes y variados tipos de vivienda, pero se deben priorizar las de una sola habitación, dando importancia a los espacios comunes.

Se propone ofrecer actividades para diferentes grupos de edad (ancianos, jóvenes y también la franja de edad intermedia)

Galdetegiaren emaitzak


Zure ustez, hurrengo arteen zeinek izan behar dute lehentasuna horrelako etxebizitza batean sartzeko?

¿Entre los siguientes colectivos, cuál crees que debe tener prioridad para al acceso a esta vivienda?




Zenbat logelako etxebizitzak izan beharko lirateke?

¿Cuántas habitaciones debería tener cada vivienda?




Zer nolako espazio pribatuak izan beharko lituzke etxebizitza bakoitzak?

¿Qué espacios privados debería tener cada vivienda?




Zer nolako espazio komunitarioak (eraikin osorako) izan beharko lituzke etxebizitzak?

¿Qué tipo de espacios comunitarios (para todo el edificio) debería tener la vivienda?




Herriari irekitako espazio bat egongo balitz eraikinean, zeintzuk uste duzu izan litezkeela horren funtzioak?

¿En caso de plantear un espacio abierto a la ciudadanía, que función debería tener ese espacio?



Etxebizitzak nolabaiteko izaera komunitarioa izatea proposatzen da. Zentzu horretan, zure ustez, zer ezaugarri izan ditzake?

Se propone que la vivienda tenga un componente comunitario. ¿Cuáles crees que deberían ser las características del mismo?





6. ONDORIOAK: PROIEKTUAREN EZAUGARRITZEA

Belaunaldi artekoa

Burututuako prozesuan, begi onez ikusten da etxebizitzaren belaunaldi arteko izaera: gazteak eta adinekoentzako zuzendutako etxebizitzak lehenetsi dira.

Dena den, horietara ez ixtea proposatzen da ere, tarteko adinekoei aukera emanaz.

Egoera zaurgarrian egon daitezkeen pertsonak kontutan hartzea ere planteatzen da.

Guzti hori bermatzeko, kupo sistema bat ezarri behar da kolektibo bakoitzarentzako etxebizitza kopuruak definituz.

Ondorioz, hiru adin tarte egongo dira:

- **18-35 urte**
- **35-60 urte**
- **60 urte baino gehiago**

Adin tarte bakoitzari baldintza eta helburu desberdinak ezarriko zaizkie sarrera baldintzei dagokionez (diru-sarrerak, familia egoera, etabar.) zein bizi-baldintza aldetik (epeak, alokairu kuotak, etabar.).

Komunitatea indartu

Izaera komunitarioa begi onez ikusten da; hau da, etxebizitzetako biztanleek nolabaiteko deboluzio egitea herriari jasotzen dutenarengatik.

Proiektu eta dinamika desberdinak martxan jarri daitezke aspektu hau lantzeko.

Halere, ez da planteatzen hori izatea etxebizitzaren ezaugarri garrantzitsua.

Inter-generacional

En el proceso llevado a cabo se ve con buenos ojos el carácter inter-generacional de la vivienda. Se ha planteado que las-os jóvenes y las-os mayores son los colectivos a priorizar.

Aun así, se plantea que se den opciones también al colectivo de edad intermedia y que se tenga en cuenta a las personas con situaciones de mayor vulnerabilidad.

Por todo ello, se plantea un sistema de cupos que defina el número de viviendas para cada franja de edad:

- **18-35 años**
- **35-60 años**
- **Más de 60 años**

Para cada franja de edad se plantean condiciones y objetivos diferentes y tendrán tanto condiciones de acceso (ingresos, situación familiar, etc.) como de alquiler (duración, precio, etc.) diferentes.

Fortalecimiento comunitario

Se trata de un aspecto que se valora positivamente. Se entiende que hay que buscar que las-os habitantes de la vivienda tengan una forma de devolver al pueblo lo que reciben por otro lado. Se pueden poner en marcha diferentes dinámicas y proyectos para promover este planteamiento.

De todas formas, no se ve que este tenga que ser el punto más característico del proyecto.

Espazio pribatuak

Erabateko adostasuna dago etxebizitza pribatuen beharrari dagokionez. Batzuk etxebizitza tipologia berdina egotea proposatu dute, beste batzuk aldiz, anitzak izatea familia eredu desberdinei erantzuteko.

Erabiltzaile kolektiboak definitzen diren heinean zehaztu beharko da aspektu hau, berezki, familia mota desberdinentzako etxebizitzak izan behar badira.

Espazio komunitario eta irekiak

Biztanleentzako bideratuak izango diren espazioak egotea garrantzitsua da. Batzuk erabilgarritasunarengatik eta beste batzuk topaleku izateko.

Sukalde komunitarioaren inguruan zalantzak daude kudeaketa arazoak planteatu ditzazkelako. Izaera komunitarioaren mugak azpimarratu direnez ere, ez da ikusten egokia izan daitekeenik. Aldiz, biztanleen arteko topaleku bat egotea garrantzitsua ikusten da. Horretarako egon-gela komunitario bat edota terraza kolektiboak egotea begi onez ikusten da.

Herriari irekiak egongo diren espazioak egotea ere beharrezkoa ikusten da. Zalantzak daude ordea horien kudeaketari dagokionez. Hiru aukera daude:

- Biztanleak izatea espazio horiek kudeatzen dituztenak baina horrek antolaketa exigentzia maila handia dakar. Biztanle-talde oso konpremetitua beharko luke izan.
- Auzo elkarte edo bestelako elkarte batek kudeatzea. Oraingoz, ez da jaso horien aldetik interes konkretu bat.
- Udalak kudeatzea. Kasu honetan, espazio polibalente bat edota udal zerbitzu konkreturen bat jartzeko aukera legoke.

Proiektu komunitarioak

Izaera komunitarioa bermatzeko proposamen orokorrak jaso dira. Ondoren jasotzen ditugu lan ildo edo aliatu posible batzuk:

- **Auzo elkarteak eta auzogintza**
- **Elkartegintza**
- **Tolosako zaintza ekosistema**
- **Inklusioa: biztanle profilekin lotutako aukera**

Edozein kasutan, formula konkretu eta erraza topatu behar da biztanleak proiektu horietan txertatzeko.

Espacios privados

Hay unanimidad a la hora de plantear la necesidad de viviendas privadas. Algunas-os proponen una única tipología y otra-os que haya diferentes que se adapten a distintos modelos de vivienda.

Este aspecto deberá definirse en base a los coletivos usuarios de la vivienda sobre todo si se plantean diferentes modelos de familia.

Espacios comunitarios y abiertos

Se considera importante la existencia de espacios comunitarios para las-os habitantes de la vivienda. Algunos de carácter utilitario pero también otros donde se dé una convivencia. Hay dudas entorno al planteamiento de una cocina comunitaria ya que su gestión puede ser problemática. Además, teniendo en cuenta el límite que se ha planteado al carácter comunitario de la vivienda, se considera que no es una opción pertinente. Sin embargo se consideran necesarios espacios que permitan el encuentro entre las-os habitantes como salón comunitario o terrazas coletivas.

También se consideran necesarios espacios abiertos a toda la ciudadanía. En cuanto a la gestión de los mismos se plantean diversas opciones:

- Que sean las-os propios habitantes las-os que se encarguen de la gestión. Teniendo en cuenta la exigencia que esto supone debería ser un grupo de habitantes con un nivel de compromiso alto.
- Que sea una AVV o otro tipo de asociación quien gestione el espacio. Por ahora, no se ha detectado un interés concreto por ese lado.
- Que sea el propio Ayuntamiento quien gestione el espacio ofreciendo un espacio polivalente o un servicio municipal concreto.

Proyectos comunitarios

Para asegurar el carácter comunitario del proyecto se plantean posibles líneas de trabajo o alianzas:

- **Implicación en el barrio y asociaciones de vecinas-os**
- **Asociacionismo en general**
- **Ecosistema de cuidados de Tolosa**
- **Inclusión: dependiendo de los perfiles de las habitantes**


En cualquier caso, es necesario buscar una fórmula simple y concreta que permita la integración de las-os habitantes en dichos proyectos.

7. PROGRAMA ARKITEKTONIKOA

Kokapena
Situación




Sekzio longitudinala
Sección longitudinal



Aurre baldintza
urbanistikoak


Condiciones
previas
urbanísticas



Sekzioa + programa orokorra
Sección + programa general


- +
- ↓
- Etxebizitza pribatua
 - Bizilagunentzako espazio komunitarioa
 - Espazio komunitario irekia

- +
- ↓
- Vivienda privada
 - Espacio comunitario vecinal
 - Espacio comunitario abierto



Behe solairua
Planta baja

- Espazio komunitarioa A aukera / Opción A



- Etxebizitza pribatua
- Bizilagunentzako espazio komunitarioa
- Espazio komunitario irekia

- Vivienda privada
- Espacio comunitario vecinal
- Espacio comunitario abierto

Espazio komunitario irekia


- Udalak kudeatutako espazioa polibalentea edo zerbitzu konkretu baterako espazioa.
- Auzo elkarte/k kudeatutako espazio polibalentea.

Bizilagunentzako espazio komunitarioa

- Topagunea
- Egongela
- Office ttiki bat
- Biltegia/trastelekua

Behe solairua
Planta baja

- Espazio komunitarioa B aukera / Opción B



- Etxebizitza pribatua
- Bizilagunentzako espazio komunitarioa
- Espazio komunitario irekia
- Vivienda privada
- Espacio comunitario vecinal
- Espacio comunitario abierto

Espazio komunitario irekia


- Udalak kudeatutako espazioa polibalentea edo zerbitzu konkretu baterako espazioa.
- Auzo elkarte/k kudeatutako espazio polibalentea.

Bizilagunentzako espazio komunitarioa


- Biltegia/trastelekua

1-2-3 solairuak
Planta 1º-2º-3º

- Etxebizitza pribatuak / Viviendas privadas



- 1 Logelako etxebizitza
- 2 Logelako etxebizitza
- Vivienda de 1 habitación
- Vivienda de 2 habitaciones



Estalkipea
Bajo cubierta

- A aukera



- 1 Logelako etxebizitza
- 2 Logelako etxebizitza
- Bizilagunentzako espazio komunitarioa
- Vivienda de 1 habitación
- Vivienda de 2 habitaciones
- Espacio comunitario vecinal

- B aukera



Bizilagunentzako
espazio
komunitarioa

- Terraza - topagune irekia
- Garbitegia - arropak eskegitzeko eremua

Belaunaldi arteko etxebizitza
Vivienda inter-generacional
TOLOSA